

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Udalbatzaren eskumenak eskuordetzea, izendapenak egitea, eta alkatearen eta zinegotzien ordainsariak, dietak eta kalte-ordainak zehaztea

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak 75. artikuluan xedatutakoari jarraituz, argitara ematen da 2019ko uztailaren 18an egin zen Antolamenduari buruzko Osoko Bilkuraren gai zerrendaren bosgarren puntua, alkatearen eta zinegotzien ordainsariak, dietak eta kalte-ordainak zehazten dituenak. Hona hemen:

1. Arduraldiaren eta ordainsarien araubidea.

Alkatearen ordainsaria duela lau urte Antolamenduari buruzko Osoko Bilkuran onetsi zena izango da, alegia, 61.981,71 euro urtean, eta arduraldi eksklusiboan jardungo du.

Lehen alkateordearentzat arduraldi eksklusiboaren araubidea onetsi da, eta haren ordainsaria 46.478,82 euro izango da urteko.

2. Gainerako zinegotziek kide anitzeko organoen eta lan taldeen bilkuretara benetan joateagatik jaso beharreko zenbatekoak.

Gainerako zinegotziek honako zenbatekoak jasoko dituzte aipatutako bilkuretara joateagatik, dieta eta kalte ordain modura:

Korporazioko kide anitzeko organo hauen bilkuretara benetan joateagatik:

- Tokiko Gobernu Batzarra: 150 euro.
- Informazio batzarra, lehendakaria ez bada: 200 euro, bertaratze eta zinegotzi bakoitzeko. Dena den, gehieneko kopuru bat ezarri da, hamabi ordainsari urtean, zinegotzi bakoitza informazio batzarretako bakoitzera joateagatik.
- Informazio batzarra, lehendakaria izanik: 450 euro, bertaratze eta zinegotzi bakoitzeko. Dena den, gehieneko kopuru bat ezarri da, hamabi ordainsari urtean, zinegotzi bakoitza informazio batzarretako bakoitzera joateagatik.
- Osoko bilkura: 300 euro, bertaratze eta zinegotzi bakoitzeko. Dena den, gehieneko zenbateko bat ezarri da: 300 euro hilean.

Lan taldeen bileretara edo karguak berekin dakartzan bilkuretara benetan joateagatik:

- Euskara lantaldea: 200 euro bertaratze bakoitzeko lehendakari izanik, eta 100 euro bertaratze bakoitzeko lehendakaria ez bada.
- Jai lantaldea: 200 euro bertaratze bakoitzeko lehendakari izanik, eta 100 euro bertaratze bakoitzeko lehendakaria ez bada.
- Administrazio batzarren lantaldea: 200 euro bertaratze bakoitzeko lehendakari izanik, eta 100 euro bertaratze bakoitzeko lehendakaria ez bada.

3. Egindako gastuengatik dietak.

Zinegotzi guztiek eskubidea izango dute dietak jasotzeko beren lana burutzean matrikulagatik, joan-etorriengatik, otorduengatik edo ostatuagatik benetan egindako gastuengatik, baldin eta aurrez ekintza horietarako baimena jaso badute.

Dieta horiek eta langileenak berdinak izango dira. Orobat, zorrozki beteko dira otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan, zerbitzuagatiko kalte-ordainei buruzkoan, xedatutakoak. Dekretu hori ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuak, zerbitzuagatiko kalte-ordainei buruzko dekretuaren hirugarren aldaketarenak, aldatu zuen.

4. Udal talde politikoentzako esleipenak.

I. Talde bakoitzarentzako 600 euro hilean, guztientzat diru esleipen bera.

II. Udal taldearen zinegotzi bakoitzeko 185 euro hilean. Diru esleipen hau ez zaie zinegotziei egingo, udal taldeei baizik.

Bat etorri Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.4 artikularekin, lege bereko 23.2.b) artikuluan xedatutakoarekin lotuta; Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bategina onetsi duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 23.2 artikularekin; eta Toki erakundeen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren arautegia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 51. artikularekin, udalbatzak, 2019ko uztailaren 18an egindako bilkuran, hau erabaki du: tokiko gobernu batzarraren esku uztea kontratazioaren arloan eskuordetu daitezkeen eskumenak, zeinak araututa baitaude Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarrian. Kontratuak esleitzeko eskumena ez da eskuordetuko, alkateak izango baitu ahalmen hori.

2019ko uztailaren 18an egindako bilkura horretan, Udalbatzak erabaki zuen izendapen hauek egitea batzarraren eskumeneko organo eta administrazioetan:

– Juan Cruz Apodaca Sojo izendatzea Udalaren ordezkari Gorobel mendilerroko Antzinako Ermandadean.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten da.

Amurrio, 2019ko uztailaren 22a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA